

# “Oilandatxoaren ametsak”

Maria Luisa PUJANA

Behin baten, oilategi baten, oilandatxo harro-harro bat bizi zan.

Txitatxo bat baino askoz handiagoa etzan, horregaitik Txitita deituten eutsien danak.

Baina zelango zolia eta dotorea zan bera!

Oilarraren lehenengo kukurrukuaz jasten zan otatik. Oilategiko osinean bere musturtxo garbitu eta espilutxo baten aurrera joaten zan: Diz-diz egiteko, bere begitxoetara ur-tantak bota; zapitxo zuriaz bere mokoia igurdi, arik eta arto garauen kolorean ipini arte; bere lumatxoak banan banan orraztu... Honeek izaten ziran bere eguneroko lehenengo zereginak. Gero amentaltxoak ipini, inarra bat hartu eta oilategia eguzkia baino garbiago ipinten eban.

Ezkonduteko garaia heldu jakonean esan eutsan bere amari:

—Amatxo, Lilitxo eta Txiribita nire lagun kutunak ezkondu egin dira eta neuk be senargai bat banau, ai, ze zoriontsu biziko nintzake!

—Ba, ene alabatxo, auzoko oilategiko oilar gangar txikia «eperdia galdu beharrean» dabil zure atzetik!



—Ez, ez, ez! Oilar gangar txikiagaz ez dot nahi ezkondu! Nik, neure laguntxoak bezela, lau hankadun abere bategaz ezkondu gura dot. Lilitxo, zaldi dotore bategaz ezkondu zan eta orain, ibilaldi luzeak egiten dauz bere lepoan, —inoan Txititak ameslari— eta Txiribita barriz, azeri-erregeagaz ezkondata, orain, bera be erregina da. Ai, ze zoriontsu bizi ei da hor goiko mendietan!

—Ai alabatxo, zure lagunen zoria jakingo bazendu, ez zeunke holan hitz egingo! Lilitxok, bere egunak, inarra bategaz zaldiei euliak kenduten igaroten dauz eta Txiribita barriz, koitadea..., azeriaren sabelean ei dago.

Txititak, bere hegotxoakaz belarriak itxita, esan eban:

—Ez, ez, ez! Ez dot entzun gura holangorik, zozo bekaizkor baten guzurak baino ez dira eta! Txiribitak bera-gaz ez ebalah nahi ezkondu eta, orain, ondamuz erretan dago.

Oilategiko bazter batetik, sagutxo batek dan dana entzun eban eta haizea baino zoliago joan zan bere lagunei albiste barria emoten.

Astategian hasi eta azeri-zulorainoko lau hankadun abere guztien bizitokiak igaro zituan. Danetan hauxe esaten eban:

—Ia mutilak, bizkortu! Txitita oilandeagaz ezkondu gura dozuena, joan bihar goizean, oilarra itzartu orduko, oilategiko ateetara!

Hurrengo egunean gure oilandatxoak, oilarraren kurrukuaz batera, beste abesti polit bat ere entzun eban:

Txitita oilandea ez egon urduri,  
ezkondu nahi badozu, senargai ugari:  
Asto belarri-handi, buzten-bako zaldi,  
katu mustur-luzea, betaurrekun txarri.  
Hagin-bako txakurra, otso eta azeri,  
zugaz ezkondu nahirik, gagoz zoraturik.

(«Pantxikaren» soinuaz)

Txititak oilategiko zulo batetik bere burutxoa atera eban eta, ene!, harek hartu eban hartzeko estualdia hareek abere guztiak ikusi zituanean!

—Ondo entzun ete dot? —inoan ameslari—. Nire senargaiak dirala esan ete dabe?

—Bai, horixe esan dabe —esan eutsan sagutxoak bazter batetik—. Neuk zabalduko deutset atea.


—Ez, ez! Itxaron! Neure musturtxoa garbitu eta espilutxoan apaindu arte ez dago atea zabaltzerik!

Txititak ez eban gure senargaiak bera ikustea arik eta larrosa bat bezain eder egon arte.

Apaindu zanean hegoak astin-astin ipini eta bere aulkiari ezarri zan. Bere eskuko espilutxoari begira irri-barre bat egin eta erregin bat bailitzan agindu eban:

—Ointxe, sartu daitezela ointxe horreek kokolook! Baina, banan-banan, ostantzean zoratuko nabe!

Lehenengo, asto belarri-handia sartu zan. Nahiko lotzorra zan berau eta, oilandea bere jarlekuan hain dotore ikuskeran, ie arnasa barik gelditu zan.



Ostaz-ostaz, esan eutsan:

—Txitita, hartuko nozu senartzat?

Hau esaten eban artean makurtu egin zan baina, zoritarrez, bere belarri handiekaz, gura barik, mokoan ukutu eutsan Txititari.

Ukutu baeutsan ukutu, harek ipini eban ipinteko aurpegia!

Bere mokotxoa gorantza jasota erantzun eutsan:

—Ez, ez, ez! Asto belarri-handia zaralako, ez zaitut gure senartzat. Joan! joan!

Gero, zaldi zuri dotore bat sartu zan: Honen saltoak eta dantzak oilandearen aurrean maitagarri agertzeko!

Txitita berari begira andurra dariola egoan baina, halango baten, zaldiak bira bat emon ebanean buztanik ez eukala ohartu zan.

Eta zelan ezkondu buzten-bako zaldi bategaz? Ez, ez, ezin eban egin holangorik, ostantzean, Lilitxok eta Txiritak zenbat barre egingo ete eben bere kontura!

Eta holantxe gure zaldia be, Txititak, laster bialdu eban haize «preskoa» hartzean.

Hurrengo, Txititaren aurrera, katu mustur-luzea hurre-ratu zan.

Honen musturtxoa ikusita, oilandea barreari eutsi ezinik egoan:

—Ja, ja, ja! Zer gertatu jatzu horrelako mustur luzea eukiteko?

—Mustur luzea dinozu? —inotsan katutxoak— ba, beroneri ezker, errege naz saguak harrapatzen! Eta, zu nigaz ezkonduko bazina...

—Laster egongo ginake biok heure sabelean —erantzun eban sagutxoak bere zulotik— Txitita ez ezkondu, arren, holango «tripontzi» bategaz!

Eta katu mustur luzeak be, aurreko senargaiak hartu eben erantzun bardina jaso eban.

Katuen ondoren, txarri gizen bat sartu zan oilategian, betaurreko ta guzti.

—Jesus! txarritxoa, zelango astrapalea ateraten dozu pausua emoten dozun bakotxean!

—Ai oilandatxoa, zapata barri honeek ez deuste neuk gura dodan moduan ibiltzen izten be!

—Eta betaurreko horreek barik, ez ete nozu ikusten?

—Ez maitetxoa, honeek barik elefantea bera be ez neuke ikusiko.

—Ba orduan, ene txarritxoa, joan zaitez etxera eta itxaron lasai-lasai. Zeuk ikusteko moduko handia egiten nazenean orduantxe ezkonduko naz zugaz.

Txarriak urten ondoren, hagin-bako txakurra hurre-ratu zan. Zelango abots ez-titsua eukan berak eta zelango ipuin politat kontatzen eutsazan Txititari!

Inolako txanpalkeriak eginda gero itandu eutsan:

—Hartuko nozu senartzat oilandatxo kutuna? Senar ez eze, atezain bezela ere berebizikoa naz.

—Txakurtxo maitea, zure berbak nire bihotza ukutu dabe. Bai, hartuko zaitut baina ez senartzat, atezaintzat baino —esan eutsan Txititak, barre algaraka egiten eban artean.

Txakurtxoak oilategitik guztiz hasarratuta urten eban.

Eta, txakurraren ostean, inor ez zan sartzen oilategira...

—Ez ete dago senargai gehiago hor kanpoan? —esan eban oilandekak.

—Otsoa eta azeri jauna dagoz, zure aurrera etorteko, zeure baimenari itxaroten, —erantzun eutsan saguak.

Ze hegazkada zolia egin eban gure oilandatxoak bere otara hau entzun ebanean!

Gero, burutxoa zulo batetik atera eta laster ikusi zian azkenengo senargaiak.

Hantxe aurreratxogoan egozan barriketa hutsean. Luzetu eban bere belarritxoa eurak esaten ebena entzuteko:

—Erdia zuretzat —inotsan azeriak otsoari— eta beste erdia eta sama-trukutza niretzat.

—Horreek ankerrok jan egin gura nabe baina Txitita nor dan laster jakingo dabe!

Bat batean otatik jatsi eta kantin handi bat bete ur berotu eban. Gaztaitxo bat kantinera bota eta bizkor igon eban barriri otara.

—Horreek maltzurrok ez ete dira sartuko ba? —inoan bere kolkorako.

—Ia, sartu zeintekeze hurrengook! —dei egin eutsen.





—Biok batera joateko dino mamala horrek —esan eutsan azeriak otsoari, keinu maltzur bat eginda.

Eta bereala sartu ziran oilategira:

—Hemen gagoz oilandatxo, zugaz ezkondu nahirik, erdi zoraturik, —esan eutsan azeri maltzurak.

—Ondo dino nire adiskideak; gu prest gagoz, biok batera be, zugaz ezkontzeko, —gaineratu eban otso gaiztoak.

—Ez, ez, ez! Nik senar bi ez dodaz behar, bat baino —esan eban oilandek.

—Begiratu, —inoan Txititak— hor kantinean gaztai eder bat dago eta zuetarik bizkorren ateraten dauanagaz, harexegaz ezkonduko naz.

Hau entzun ebeneko sartu zituen euren musturrak kantinean baina hareek ez eben gaztairik atera, bai oster euren musturrak surteko txingarrak baino goriago.

—Ai! ai! ai! —hango txilio eta garraisiak. Tximistek baino arinago urten eben hareek oilategitik!

Eta gure oilandatxo «harro-putzen» ametsak lau hankadun abere bategaz ezkontzeko, haizeak eroan zituan.

Aurrerantzean, amatxoren esanari jaramon gehiago egingo eutsan.

Baina ez uste izan «neska-zahar» gelditu zanik. Ez, ez! Handik lasterrera oilar gangar txikiagaz ezkondu zan eta guztiz zoriontsu bizi ei ziran.